



Usurbilgo Udala



**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2016KO OTSAILAREN 23AN
GOIZEKO 8:15ETAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Jone Urdanpilleta Urdanpilleta eta Alaitz Aizpurua Labaka.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Irene Garcia Palaciosek eta Josune Estella Arranzek.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

***2016ko urtarrilaren 25eko bilkurako akta.**

Batzarkideek, 2016ko urtarrilaren 25eko bilkurako akta aho batez onartu dute.

***2016ko otsailaren 8ko bilkurako akta.**

Batzarkideek, 2016ko otsailaren 8ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- ATXEGALDEKO ERDIKO KALEA 6 ETXEKO JABEKIDEEI ETXEKO
IGOGAILUA BERRITZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ,04/2016-0063

ATXEGALDEKO ERDIKO KALEA 6 ETXEKO JABEKIDEEK etxeke igogailua berritzeke udal baimena eskatu dute.

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, eskaera aztertu ostean, ondoko txostena eman du:

UA2016_OHAN_08

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
OBRA HAUNDIAK _____
ATXEGALDEKO ERDIKO KALE 6AN IGOGAILUA BERRITZEKO
EXEKUZIO PROIEKTUARI TXOSTENA

KOKAPENA: Erdiko kalea 6, Atxegalde, Usurbil.
ESKAERA DATA: 2016ko otsailaren 11
ESKATZAILEA: Erdiko kalea 6 etxeke jabekideen elkarte
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2016-063
EXEKUZIO PROIEKTUAREN PEM: 47.290,0euro



Usurbilgo Udala



HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA: 128,47euro Fidantza (%120): 154,1euro

AURREKARIAK

- 2016ko otsailaren 11ean Atxegaldeko Erdiko kalea 6ko jabekideek eskaera egin dute Udalean, igogailua berritzeko.

Erlazionatuak:

- 2016ko otsailaren 11ean Atxegaldeko Erdiko kalea 6ko jabekideek eraikinaren EIT-a aurkeztu dute Usurbilgo Udalean.

TXOSTENA

Gorka Uranga jaunak, Atxegaldeko Erdiko kalea 6ko jabekideen izenean, bertan igogailua berritzeko Exekuzio Proiektua aurkeztu du Udalaren oniritzia eskatuz. Aurkeztu dokumentazioa da, eskaera orriarekin batera; Exekuzio Proiektua teknikari gaituak izenpetua (arkitektoak) eta dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia (COAVN 2016/01/27). Exekuzio Proiektuak barneratzen ditu; Memoria, EKT-ren justifikazioa, Baldintza Plegua, Hondakinen Kudeaketarako Azterlana, Segurtasun eta Osasunerako (Oinarrizko) Azterlana, Planuak eta Aurrekontua.

Aurkeztu proiektuaren helburua da: *“eliminar barreras arquitectónicas, para lo cual se propone bajar el ascensor hasta llegar de forma accesible a cota de calle y prolongar una parada más en la planta bajo cubierta, facilitando el acceso a las viviendas para aquellas personas con movilidad reducida”*.

Dokumentazioa aztertu ostean honakoa esan daiteke:

- IRISGARRITASUN ARAUDIAREN BETETZEA: Aurkeztu planuetan eta memorian adierazten denez, igogailuaren kabinak 95x120cmko neurriak izango ditu, gutxieneko 80 cm-ko pasabidea utziaz. Igogailuaren aurrean solairu bakoitzeko 1.4 m-ko diametrodun zirkunferentzi librea trazatu ahalko da eta orohar igogailurarteko koskak kenduko dira. Eskailera tramu berriak 1.0 m-ko zabalera izango du. Igogailuak etxebizitzak dauden solairu guztietara emango du zerbitzua, baita trastelekuak kokatzen diren estalkipekora ere. Hau guzti hau obran horrela egikarrituko bada eta orohar irisgarritasun araudiak ezarritako neurriak beteko badira, ez dago eragozpenik.
- HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA ETA FIDANTZA: Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 128,47 €-koa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (154,1€). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena



Usurbilgo Udala



aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

- OBRA EGIKARITZEKO EPEAK:

- o **Obrak hasteko gehiengo epea: 6 hilabete**
- o **Obrak geldirik egon daitezkeen gehiengo epea: 3 hilabete.**
- o **Obrak amaitzeko gehiengo epea: 1 urte.**

ONDORIOA

Goian aipatutakoari jarraituz, Atxegaldeko Erdiko kalea 6an igogailua berritzeko Exekuzio proiektuari ALDEKO txostena idazten zaio, beti ere, honako baldintzen pean:

- **Orohar, irisgarritasun araudiak eta EKT-k ezarritako neurriak bete beharko dira, bereziki:**
 - **igogailuaren kabinak gutxieneko 90x120cm-ko neurriak.**
 - **Igogailuaren ateak 80 cm-ko pasabide librea.**
 - **Kanpotik igogailurainoko koskak kenduko dira.**
 - **Igogailuaren aurrean solairu bakoitzean 1,4 m-ko diametrodun zirkunferentzia librea trazatu ahalko da.**
 - **Eskailera tramu berriek 1,0m-ko zabalera gutxieneko izango dute.**
 - **Igogailurainoko korridoreak gutxieneko 1,1m-ko zabalera izango du.**
 - **Igogailuak indarren den araudia eta Soinuaren legeak ezarritako soinu gehiengo bete beharko du etxebizitzaren eremuan, horretarako proiektuan eta obran beharrezkoak diren neurriak hartu beharko direlarik.**
- **15 EGUNEKO EPEAN eta edonola, falta diren obrak hasi aurretik Hondakinen Kudeaketari dagokion fidantza ezarri beharko da (154,1euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.**

Hau da behean izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobe oinarritutako besteren kalterik gabe. Udalari jakinarazten zaiona, dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, 2016ko otsailaren 18an
UDAL ARKITEKTOA/HIRIGINTZA, OBRAK ETA INGURUMENA
SAILEKO BURUA



Usurbilgo Udala



Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

Udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: ATXEGALDEKO ERDIKO KALEA 6 ETXEKO JABEKIDEEK etxeko igogailua berritzeko udal baimena, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**

- Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 128,47 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (154,10 € euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

154,10 €ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza: HZ.04/2016-0063* jarriaz kontzeptuan.

- Ignacio Granja Echeverria arkitektoek 2016ko urtarrilean idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariek bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Orohar, irisgarritasun araudiak eta EKT-k ezarritako neurriak bete beharko dira, bereziki:
 - igogailuaren kabinak gutxieneko 90x120cm-ko neurriak.
 - Igogailuaren ateak 80 cm-ko pasabide librea.
 - Kanpotik igogailurainoko koskak kenduko dira.
 - Igogailuaren aurrean solairu bakoitzean 1,4 m-ko diametrodun zirkunferentzia librea trazatu ahalko da.
 - Eskailera tramu berriek 1,0m-ko zabalera gutxieneko izango dute.
 - Igogailurainoko korridoreak gutxieneko 1,1m-ko zabalera izango du.
 - Igogailuak indarren den araudia eta Soinuaren legeak ezarritako soinu gehiengo bete beharko du etxebizitzaren eremuan, horretarako proiektuan eta obran beharrezkoak diren neurriak hartu beharko direlarik.
- Obra burutzeko zoru publikoan aldamioak edo kontainerra jarri behar izanez gero, udal baimena eskatuko da horretarako prestatuta dagoen



Usurbilgo Udala



inprimakia erabiliz. Hartuko den azalera eta, hasierako eta bukaerako egunak zehaztuko dira.

- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 3 hilabete.
 - Obraren egikaritza epe gehiengoa: urte 1.

- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:

1. Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.
2. Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Horrekin batera CTE betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigilaturik eta Kolegioan bisaturik.

3. Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren plana ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzako obra lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.

4. Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 zm.takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozela adieraziz.

5. Obralanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.

6. Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak igogailua funtzionamenduan jartzeko baimen ziurtagiria.

- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:

- Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.



Usurbilgo Udala



- Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
- Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun neurriak beteko dira.
- Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

3.- JESUS MARIA AIZPURUA LOPETEGI JAUNAK, BIDEGAIN ETXEAREN GOIALDEAN BAIMENIK GABE EGINDAKO OBRAK LEGEZTATZEA ETA HASITAKO OBRA HORIEI AMAIERA EMATEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2014-0188

AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2015eko otsailaren 24ean, JESUS MARIA AIZPURUA LOPETEGI jaunari, Bidegain etxearen goialdean (N-634 errepidean 2,15 kilometro puntuan), mendiko lurri eusteko harri-lubeta eraikitzeke udal baimena ematea erabaki zuen.

Ikusirik JESUS MARIA AIZPURUA LOPETEGI jauna baimenik gabeko obrak burutzen ari zela, 2015eko maiatzaren 29an, Alkatetzak 2015/0488 dekretuaren bidez, zera erabaki zuen:

LEHENDABIZI: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 220. artikulua ezarritakoaren arabera, goran izendatutako arau-hauste honen erantzuleari egiten ari den obrak **BEREHALA GELDITZEKO** agintzea.

BIGARRENA: Gelditzeko agindua bete dadin, Udaltzaingoari beharrezko neurriak hartzeko agintzea, beharrezkoa balitz interesdunei Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 220. artikuluko 2. paragrafoak xedatutako gogoraziz.

HIRUGARRENA: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 221. artikulua ezarritakoaren arabera, erabaki honen jakinarazpena jasotzen den biharamunetik kontatzen hasita **HILABETEKO** epea ematea interesdunari ezkutuko obrak legeztatzeke eskaera aurkez dezan, dagoeneko burutu dituenak eta burutu nahi dituenak argi eta garbi desberdinduz.

LAUGARRENA: Aurrekarietan zehaztutako arrazoiengatik, JESUS MARIA AIZPURUA LOPETEGI jaunaren aurka dagokion Zigor Jardunbidea hasteko agintzea.

BOSGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari, udaltzaingoari eta udal aparejadoreari ematea.



Usurbilgo Udala



2015eko irailaren 10ean JESUS MARIA AIZPURUA LOPETEGI jaunak baimenik gabeko obrak legeztatzeko proiektua aurkeztu zuen.

LEGEZTATZE PROIEKTUA

Legeztatze Proiektua (2015eko iraila) Kele Lasa eta Ibon Astegia arkitektoek sinatu eta dagokion elkargoak ikus-onetsita dago. Proiektua, honako hauek osatzen dute: Memoria, Planoak, Segurtasun eta Osasun Azterlana, Kalitate Kontroleko Plana, Baldintza Plegua, Hondakinen Kudeaketarako Azterlana, Neurketak eta Aurrekontua.

BIDE AZPIEGITURETAKO DEPARTAMENTUAREN TXOSTENA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituretako Departamenduak 2015eko azaroaren 25ean helarazi digu bere jakinarazpena. Obrak baimenduz, Kudeaketa eta Plangintzako zuzendari nagusiak emandako ebazpenean ondoko baldintzak ezartzen dira:

1. Epea urtebete izango da gehienez.
2. Obrak baimen eskaerarekin batera aurkeztutako agiriaren arabera egin behar dira..
3. Baimen hau eraikina konpondu, zaindu edo eraberritze obra edo lanak egiteko bakarrik eman da, eta horren ondorioz ezingo da bolumena gehitu ez eta lerrokadura edo sarbiderik aldatu ere.
4. Obrako elementuek galtzada, bazterbide edo areka ez hartzeko neurri egokiak hartu beharko dira eta obra egin ondoren ingurua erabat garbi utziko da
5. Obrak egiteko beharrezkoa den edozein sistemak (ohiko aldamiok, aldamiu esekiak ...) ez du zirkulazioa oztopatuko, eta behar bezala seinaleztatu behar da, MOPUren obren seinalizazioari buruzko 8.3.I.C. arauari jarraituz.
6. Baimen hau Ustiapen Ataleko errepidezainen eskueran egongo da beti.

GIPUZKOAKO ERREPIDEEN HERRI JABARIGUNE ETA BABESGUNEETAKO OBRA ETA ERABILERETARAKO BALDINTZA OROKORRAK

Emandako baimenak interesatuak ekarritako 1. dokumentazioan espresuki deskribatutako jarduera, lan eta obrak bakarrik babesten ditu eta, betiere, baimenaren testuak eta baldintzek jasotzen dituzten aldaketak kontuan hartuz. Horiez gain, beste zerbait egin nahi izanez gero, beste baimen bat eskatu beharko da.

Baimena jaso izanak ez du esan nahi beste lege xedapen batzuk aplikatuz beharrezkoak dituen bestelako lizentzia, baimen eta zilegidurak behar ez dituenik. Zehazki esateko, baimenak ea du kentzen hirigintza edo jarduera lizentzia eduki beharra eta ez du aurreiritzirik adierazten hura emateari buruz. Ez ditu barkatzen, ezta ere, Foru Aldundiko bertako beste organo batzuetan lizentzia hori lortzeko egin beharreko tramiteak.



Usurbilgo Udala



Baldin eta emandako epean, edota, eperik ez badu, baimena eman eta ondorengo sei hilabeteen barruan baimendutako jarduera, lan edo obrak ez badira hasten, eskatzaileak almo hura alde batera utzi duela ulertuko da eta baimena automatikoki iraungita geratuko.

Emandako baimenak, era berean, iraungita eta ondoriorik gabe geratuko dira, ondoko kausa hauetakoren bat gertatuz gero:

- Jarduera, lan edo obrak sei hilabete baino gehiagotan eteten badira.
- Egiteko eperik ematen ez denean, jarduera, lan eta obrak ez badira epe normal batean hasten eta amaitzen.
- Baimenean jarritako baldintzak ez badira betetzen.

Jarduera, lan eta erabilerak, galtzadari edo herri jabariko bestelako elementuei erasaten dietenean, errepideko zirkulazioa, ahal dela, ez galarazteko eta ez zailtzeko moduan egin behar dira.

Obrek edo erabilerek errepideetako zirkulazioari erasaten diotenean, 1987ko abuztuaren 3 1 ko Ministerioko Aginduak (1987ko irailaren 18ko BOE), obretako seinaleak eta tangak ipintzeari eta obren babesari, garbitasunari eta bukaerari buruzkoak xedatutakoa beteko da.

Aldundiak ez du hartuko bere gain erantzukizunik, baldin zirkulazioaren ondorioz edota errepidean, bidean edo haietako elementu funtzionaletan egiten diren artapen edo ustiapen lanen ondorioz, herri jabariguneko obretan edo instalazioetan ezer hausten, matxuratzen, hondatzen edo kalteturik gertatzen bada.

Bideen herri jabariko erabilera era aprobetxamenduen jabeek izango dute erantzukizuna, baldin eta beren instalazioek errepideari, bideari, haietako elementu funtzionalei edo erabiltzaileei kalterik edo zauririk eragiten badiete.

Herri jabariguneko instalazioen jabeak behartuta daude, gainera, instalazioak beren kontura aldatzera, baldin eta errepide edo bideari kalterik egiten badiote, edota errepide edo bideak aldatzeko edo hobetzeko proiekturen baték beharrezko egiten badu.

Jarduera, lan edo obrak egiterakoan debekatuta dago materialak edo bestelako gauzak errepideko galtzadan uztea, baimena ez bada espresuki errepidearen zabalgunean bertan jarduera, lan edo obraren bat egiteko.

Obrak egiteko edo erabileretarako baimena dutenek elementuak segurtasun baldintza onetan eduki beharko dituzte, errepiderako eta han dabilzanentzat arriskurik ez dadin egon.

Baldin eta, ebazpen honetan baimendutako lanak, 11. errepidean, herri jabarigunean edo babesgunean egin behar badira, eskatzaileak Laneko Arriskuen Prebentzioaren Legea bete beharko du.



Usurbilgo Udala



OHARRAK

Baimena arautzen du 2006ko ekainaren 6ko 1/2006 Foru 1. Dekretu Arau-emaileak, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratua onartzekoak (2006ko ekainaren 21eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 117. zenbakia)

Galtzadako ertza edo kanpoko marra hau izango da: zolatuta dagoen eta automobilak ibiltzeko den errepide zatiaren kanpoko ertza edo marra.

Laugunearen ertza edo kanpoko marra hau izango da: errepideko luerauzketa edo lubetetako ezpondek eta, hala badagokio, bideen fabrika obretako eta horien zimenduetako kanpoko parametroek lursail naturalarekin duten intersekzioko marra.

Zubi, zubibide, tunel, egitura edo antzeko obretan, laugunearen ertza edo kanpoko marra hau izango da: obren ertzak lursailaren gainean duen proiektzio bertikala.

Lursail naturala errepidearen maila berdinean dagoenean, hau izango da: arekaren kanpoko marra eta, arekarik ez badago, bide zolatuaren kanpoko marratik 50 zentimetrora dagoen marra.

Distantziak horizontalean eta errepidearen ardatzaren perpendikularrean neurtuko dira beti.

URA – UR AGENTZIAREN TXOSTENA

URA – ur agentziak 2016ko otsailaren 9an eman du bere txostena. Bertan hitzez hitz honela dio txostenak:

GAIA: USURBILGO (GIPUZKOA) UDALERRIAN, ORIA IBAIAREN ESKUIN ERTZEKO UREN POLIZI GUNEAN ETA GI-634 ERREPIDEAREN ONDOAN TERRENOA EGONKORTZEKO HARRI LUBETA BAT EGITEKO LANEN ETA ERAIKIN BAT BARRUTIK ERABERRITZEKO EGINDAKO LANEN LEGEZTATZE ESKAERA.

2014/12/04ko datarekin izan zuen sarrera Uraren Euskal Agentziaren ekialdeko kantauriar arroen (Gipuzkoa) Bulego honetan, Usurbilgo (Gipuzkoa) udalerrian, GI-634 errepidearen ondoan terrenoa egonkortzeko harri lubeta bat eraikitzeke lanak egin ahal izateko Jesus Ma Aizpurua Lopetegi jaunaren baimen eskariak.

2015/01/21eko datarekin eskatzaileari jakinarazi zitzaion aipatutako obra horietarako ez zuela beharrezkoa izango Arroko Organismoaren baimenik eskuratzea.

2015/09/16ko datarekin sarrera izan zuen Bulegoan Usurbilgo udalaren partetik dokumentazio lekualdatze eta txosten eskari batek, non Bulego



Usurbilgo Udala



honetara hasiera batean bidalitako obretan jasota ez zeuden obra batzuk legeztatzea eskatzen zen.

Bulego honetako ikuskaritza zerbitzuek 2016/02/05eko datarekin erreferentziako tokira egindako bisitaren ondoren ikusi ahal izan da hasierako proiektuan jasota ez zeuden eta egin diren obrak ez dutela berezko terrenoaren erliebean aipatzeko moduko aldaketarik eragiten, ez uholde boladen aurrean bertako zaurgarritasuna areagotzen, ezta ere inguruko uholdagarritasuna kaltetzen.

Guzti hau dela eta, Bulego honetatik jakinarazten da, bai Usurbilgo (Gipuzkoa) udalerrian, Orla' ibaiaren eskuin ertzeko uren polizi gunean eta GI-634 errepidearen ondoan terrenoa egonkortzeko harri lubeta bat eraikitzeko lanek, bai eraikinaren barrualdean egindako eraberritze lanen legeztatzerako ez dela beharrezkoa izango Arroko Organismoak ematen duen baimena eskuratzea.

Donostian, 2016ko otsailaren 9an

UDAL ARKITEKTOAREN TXOSTENA

Eskaera eta espedienteko dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, ondoko txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA

Udal Teknikariak Alkate andreari

BAIMEN GABEKO OBRAK

**BIDEGAIN ETXEKO BAIMENIK GABEKO OBREN LEGEZTAPEN
PROIEKTU BERRIARI BURUZKO TXOSTENA**

KOKAPENA: N-634 Errepidean 2,15 K.P1 Usurbil

DATA: 2015eko irailaren 10a.

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2014-0188

EGIKATITZE MATERIALAREN AURREKONTUA (PEM): 58.745,00
EURO

HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA: **796,75 €** Fidantza
(%120): **956,10 €**

1.- AURREKARIAK

- 2014ko apirilaren 28an Jesus Mari Aizpuruak Bide Gain etxearen inguruan (N-634 errepidean, 2.15 K.P1-ean) harri-lubeta egiteko baimena eskatu zuen.
- 2014ko azaroaren 5ean interesdunak berriz ere obra baimena eskatu du, eta horretarako beharrezkoa den proiektua aurkeztu.
- 2014ko azaroaren 11n Gipuzkoako Foru Aldundiak (Mugikortasun eta Bide Azpiegituretako Departamentuak) aldeko txostena idazten dio "Eraikina eraberritzea eta lerroa ixtea harri-lubeta egiteko" eskaerari.



Usurbilgo Udala



- 2014ko azaroaren 26an 3456 zenbakidun idazkiaren bitartez Uraren Euskal Agentziaren baimena ere aurkezteko eskatzen zaio interesdunari.
- 2015eko urtarrilaren 28an URA Agentziaren baimena aurkeztu du eskatzaileak, dagokion udal baimena lortzeko.
- 2015eko otsailaren 20an udal arkitektoaren ALDEKO txostena.
- 2015eko otsailaren 24an harri-lubeta eraikitzeko udal baimena
- 2015eko martxoaren 14an 331,20 euoko obra egiteko bermea jarri zuen interesatuak
- 2015eko apirilaren 30ean Gipuzkoako Foru Aldundiko (Mugikortasun eta Bide Azpiegituretako Departamentuko) baimenaren luzapena aurkeztu da
- 2015eko maiatzaren 26an udaltzainek bertaratzeari egin dute eta egiten ari diren obralanei argazkiak atera dizkie.
- 2015eko maiatzaren 27an udal arkitektoaren txostena
- 2015eko maiatzaren 29an alkatearen 2015/0488 dekretua obrak gelditzeko aginduz eta hilabeteko epea emanaz legeztatze eskara aurkezteko
- 2015eko ekainaren 9an udaltzaingoaren txostena
- 2015eko uztailaren 16an interesatuaren idatzia, baimenik gabeko obrak legeztatze proiektua aurkeztuz
- 2015eko abuztuaren 10ean egokitutako planoak aurkeztu dituzte emailaz proiektuaren idazleek
- 2015eko abuztuaren 11ean udal arkitektoaren bertaratzeari
- 2015eko abuztuaren 15ean Jone Miner udal arkitektoak txostena egin zuen, honakoa ondorioztatuz (interesatuari jakinarazi zitzaiona 2015-08-31ean):

*“Goian aipatutakoari jarraiki, **gauzatutako obrak ongi jasotzen dituen legeztapen proiektua aurkeztu beharko da dagokion elkargoak ikus-onesita HILABETEKO epean; proiektuaren hiru kopia ekarri beharko dira proiektua beste administrazioetara ere bidali behar delako. Ondorioz, Bidegain etxeko baimenik gabeko obraren legeztapen proiektuari **AURKAKO** txostena idazten zaio. **Eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Sailari eta Uraren Euskal Agentziari dagozkien txostenak eskatzea proposatzen da.**”***

- 2015eko irailaren 10ean interesatuak legeztatze proiektu berria aurkeztu zuen
- 2015eko irailaren 16an Ur Agentziari eta Bide Azpiegituren Departamentuari txostena eskatu zitzaion.
- 2015eko irailaren 24an interesatuaren idatzia isuna handiegia dela esanaz.
- 2015eko azaroaren 25ean Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Departamentuaren jakinarazpena, baimena emanaz.
- 2016ko otsailaren 9an URA Ur Agentziaren idatzia Udalak baimentzeko “ez dela beharrekzo izango Arroko Organismoak ematen duen baimena eskuratzea” jakinaraziz.

2.- TXOSTENA

Jesus Mari Aizpuruak Bide Gain etxearen inguruan (N-634 errepidean, 2.15 K.P1-ean) harri-lubeta eta obra osagarriak legeztatze proiektu berria aurkeztu du, dagokion baimena eskatuz.



Usurbilgo Udala



Aurkeztu den dokumentazioa da; eskaera orria eta Legeztatze Proiektuaren bi ale. Legeztatze proiektuak barneratzen dituenak dira; memoria, planuak, aurrekontua,

- **LEGEZTATZE PROIEKTUAREN INGURUAN;** Jone Miner udal arkitektoak bere txostenean eskatzen zuen egindako obrak bere horretan jasotzen zituen Legeztatze Proiektua aurkeztea. Berarekin hitzeginda, bertara egindako ikuskapenetan ikusitakoa eta aurkeztu dena bat datozela gaineratu du. Beraz, **esan liteke, Udalak 2015eko abuztuaren 31ean eskatutakoa bete dela.**

Horrekin batera, ohartarazten da legeztapenak ezingo duela inolaz ere Bide Gain etxearen azalera eraikiaren handitzea baimendu.

- **GFA-KO BIDE AZPIEGITURA SAILAREN BAIMENA:** Aurrekarietan azaldu bezala 2015eko azaroaren 25ean jaso da jakinarazpena Udalean. **Beti ere bertan jasotako baldintzak bete beharko dira.**
- **UR AGENTZIAREN BAIMENA:** Aurrekarietan azaldu bezala jaso da idatzia 2016ko otsailaren 9an Udalean. Bertan esaten denez; egindako obrak legeztatze "ez dela beharrezko izango Arroko Organismoak ematen duen baimena eskuratzea".
- **HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA ETA FIDANTZA:** Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 796,75 €-koa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (956,1€). **Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.**

3.- ONDORIOAK

Ondorioz, aurkeztu den *Bidegain Etxearen harri lubeta eta obra osagarriak legeztatze proiektuak* betetzen ditu Udalaren eskakizunak eta ondorioz, **ALDEKO txostena idazten zaio, beti ere, honako baldintzapean:**

- **Legeztapenak ezingo du inolaz ere Bidegain Etxearen egungo (obren aurretiazko) azalera eraikiaren handitzea baimendu. Hori dela-eta; sarrerako kanpo atearen gainean ezingo da lamazko edo bestelako itxiturarik jarri; jatorrizko konfigurazioa mantendu beharko da. Ateak aurrekoaren itxitura antzekoa izan beharko du, kanpo ate bat izanik.**



Usurbilgo Udala



- Orohar indarrean den irisgarritasun araudia bete beharko da eta ondorioz, sarrera kanpo atea ezingo du eskaila edo koskarik izan, kanpo sestra berean egin beharko da sarrera edota bestela araudia betetzen duen malda jarriaz.
- **15 EGUNEKO EPEAN** eta edonola, falta diren obrak hasi aurretik Hondakinen Kudeaketari dagokion fidantza ezarri beharko da (956,1euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

Usurbilen, 2016ko otsailaren 18an
UDAL ARKITEKTOA
IRIGINTZA, OBRAK ETA INGURUMENA SAILEKO BURUA
Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: JESUS MARIA AIZPURUA LOPETEGI jaunak, Bidegain etxearen goialdean (N-634 errepidean 2,15 kilometro puntuan), baimenik gabe egindako obrak legeztatzea.

BIGARRENA: JESUS MARIA AIZPURUA LOPETEGI jaunari, Bidegain etxearen goialdean (N-634 errepidean 2,15 kilometro puntuan) hasitako obrei amaiera emateko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**

- Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 796,75 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (154,10 € euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

956,10 €ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “*Fidantza: HZ.04/2014-0188 (2)*” jarriaz kontzeptuan.



Usurbilgo Udala



- Kele Lasa eta Ibon Astegia arkitektoek 2015eko irailean (EHAE0 2015-07-13) idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Legeztapenak ezingo du inolaz ere Bidegain Etxearen egungo (obren aurretiazko) azalera eraikiaren handitzea baimendu. Hori dela-eta; sarrerako kanpo atearen gainean ezingo da lamazko edo bestelako itxiturarik jarri; jatorrizko konfigurazioa mantendu beharko da. Ateak aurrekoaren itxitura antzekoa izan beharko du, kanpo ate bat izanik.
- Orohar indarrean den irisgarritasun araudia bete beharko da eta ondorioz, sarrera kanpo ateak ezingo du eskaila edo koskarik izan, kanpo sestra berean egin beharko da sarrera edota bestela araudia betetzen duen malda jarriaz.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituretako Departamenduak ezarritako baldintzak beteko dira ezinbestean.
- Ezinbestean bete beharko dira indarrean diren EKT eta aplikaziozko diren gainontzeko araudiak.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 3 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 3 hilabete.
 - Obraren egikaritza epe gehiengoa: 6 hilabete.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 1. Bertako zuzendari eskudunak izenpetu eta dagokion Elkargoak oniritzirik, lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla ziurtatzen duena.
 2. Lanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Elkargoak oniritzitako azken likidatzea, lanen egiazko kostua adieraziz.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberrako segurtasun neurriak beteko dira.



Usurbilgo Udala



- Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

4.- ORBELDI DANTZA TALDEA ELKARTEA ELKARTEEN UDAL ERREGISTROAN INSKRIBATZEA.

Esp.zk.: ID.17/2016-0066

IKUSIRIK

Usurbilgo Udaleko Udal Erregistro Orokorrean, Ugaitz Agirrek *Orbeldi Dantza Taldea Elkartearen* izenean, 2016ko otsailaren 4ean 369 zenbakia duen eskabidea aurkeztu duela. Bertan, aipatutako elkarte Elkarte Udal Erregistroan inskribatzea eskatu duela.

Eskabidearekin batera, irabazi asmorik gabeko elkarte erregistroari buruzko ordenantzaren hirugarren puntuan aipatzen den dokumentazioa ere aurkeztu duela:

- a) Eusko Jaurlaritzako Elkargoen Erregistroan inskribatua egotearen agiri eguneratua.
- b) Elkartearen estatutuak.
- c) Helbide soziala.
- d) Zuzendaritzaren izen osoak.
- e) Titularra elkargoa izango den bankuko kontuaren zenbakia.

Kultura, euskara eta gazteria teknikaria den Maite Iribar andreak, aipatutako elkarte irabazi asmorik gabeko elkarte erregistroan inskribatzearen aldeko txostena egin duela. Txostena espediente jaso da eta honela dio txostenaren ondorioak: *“Orbeldi Dantza Taldeak garatzen duen jarduera udalaren onurakoa da. Honenbestez, Orbeldi Dantza Taldea Elkarte irabazi asmorik gabeko elkarte erregistroan inskribatzearen aldeko txostena egiten dut.”*

KONTUTAN HARTURIK

Udalaren irabazi asmorik gabeko elkarte erregistroari buruzko ordenantza (GAO 2005/08/18).

Kultura, euskara eta gazteria teknikariaren txostena kontutan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENA: *Orbeldi Dantza Taldea Elkarte* irabazi asmorik gabeko elkarte udal erregistroan inskribatzea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta udal kontu-hartzaitzari ematea.



Usurbilgo Udala



Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 8:45etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.